

Aldibereko interpretazioa eta Eusko Legebiltzarreko diskurtsoa: enuntziatu parentetikoaren eta modalizazioaren azterketa corpus elebidun eta hirukoitz batean

Tesiaren egilea: Claudia María Torralba Rubinos

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Jakintza-arloa: Itzulpengintza eta interpretazioa

Tesi-zuzendaria: Ines Maria Garcia-Azkoaga

Tesiaren laburpena:

Tesi honek Eusko Legebiltzarreko interprete profesionalen lana du aztergai, aldibereko interpretazioa testuarekin deritzon modalitatean, euskaratik gaztelaniarako norabidean. Izenak berak iradokitzen duenez, hizlariak ahoz esango duten testua interpreteei idatziz helarazten dietenean egiten den interpretazio-modalitate berezia da, eta diskurtso beraren hiru bertsio aztertzeko aukera ematen du: idatzizkoa, hizlariaren ahozkoa eta interpretearen itzulpena. Ikerketaren xedea da, hain zuzen, ekoizpen horietako bakoitza baldintzatzen duten faktore pragmatikoak eta hiru ekoizpenen arteko harremanak hobeto ezagutzea. Horretarako, alderdi pragmatiko zehatz bat aztertu da: enuntziatu parentetikoak eta haien bitartez bideratzen den modalizazioa.

Corpusa osatzeko, Eusko Legebiltzarrean 2019 eta 2021 artean euskaraz osorik edo partzialki egindako 30 esku-hartze errealean hiru ekoizpenak bildu dira, idatzizko testuak eskatuta eta ahozko ekoizpenak automatikoki transkribatuta eta berrikusita. Guztira, 139.061 hitzeko corpus elebidun eta hirukoitza osatu da. Azterketarako erabilitako ereduak testua komunikazio-unitatetzat hartzen duen interakzionismo sozio-diskurtsiboa (ISD) eta testuaren arkitektura izan dira.

Emaitzek erakutsi dute, alde batetik, enuntziatu parentetikoak hiru ekoizpenetan agertzen diren arren, idatzizko testuak ahoz esatean agertzen direla maizago. Bestetik, agerian geratu da interpreteek ezabatu egiten dituztela ahozkoan ekoiztutako enuntziatu parentetiko horietako gehienak, eta, ondorioz, baita horiek bideratzen duten modalizazioa ere. Dena den, badirudi interpreteak kontziente direla ezabaketa horien eragin pragmatikoaz, beste baliabide linguistiko batzuen bitartez saiatzeko baitira enuntziatu parentetikoaren balio modalizatzailea transmititzen. Modalizazio motak xehekiago aztertuta, parlamentuko esku-hartzeetan modalizazio apreziatiboa da nagusi, baina modalizazio logikoak, deontikoak eta pragmatikoak ere identifikatu dira.

Gauzak horrela, ondorioztatu da enuntziatu parentetikoak idatzizko testua ahoz esatean agertzen direla batez ere, idatzizko testua unean uneko komunikazio-behar espezifikoetara egokitzeko malgutasuna eskaintzen dutelako. Ildo beretik, debatearen testu-generoari lotutako erregularitasuntzat hartu da parlamentuko esku-hartzeetan modalizazio apreziatiboa bideratzen duten enuntziatu parentetikoak agertzea; izan ere, parlamentuko debatea oso polarizatuta dago, eta, ondorioz, norberaren irudi ona babestu eta aurkariena erasotzeko erabiltzen dira.

Interpreteen lanari dagokionez, ikusi da enuntziatu parentetikoak agertzeak edo ez agertzeak eragin zuzena daukala diskurtsoaren alderdi pragmatikoan, eta, ondorioz, interpreteek aktiboki parte hartzen dutela mezuaren (berr)eraikuntzan. Ondorio nagusia da enuntziatu parentetikoa efektu zehatz bat sortzeko erabiltzen den estrategia diskurtsibo-pragmatikoa dela, batez ere ahozkoan erabiltzen dena, eta modu berean funtzionatzen duela hizlariak eta interpreteek eraikitako diskurtsoetan.